

ISSN: 2530-6561  
2020ko abendua  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Txina: Garapen eredua birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria

Juan Barredo-Zuriarrain  
Ricardo Molero Simarro



## Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria

---

Juan Barredo-Zuriarrain

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea.

Ricardo Molero Simarro

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoa eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

### Aurkibidea

<b>1.</b> Sarrera .....	5
<b>2.</b> Txina XX. mendearen amaieran: manufaktura potentzia, esportazio sustatzailea eta desberdintasun eragilea .....	5
<b>3.</b> XXI. mendeko "garapen zientifikoaren" eta "gizarte harmoniatsuaren" aldeko apustu berria .....	8
<b>4.</b> Hazkunde estrategia berriari lotutako arriskuak eta tentsioak .....	12
Ondorioa .....	15
Bibliografia .....	15

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza  
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga  
Iker Etxano  
Mertxe Larrañaga  
Elena Martínez Tola  
Mikel Zurbano

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

**Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria**

Egilea: Juan Barredo-Zuriarrain, Ricardo Molero Simarro.

hegoak zabalduz - 17. zk. 2020ko abendua

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eu](http://www.hegoa.ehu.eu)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eu](mailto:hegoa@ehu.eu)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eu](mailto:hegoa@ehu.eu)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia  
138. posta-kutxa  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[hegoa@ehu.eu](mailto:hegoa@ehu.eu)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,  
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Koronabirusaren krisiak agerian utzi du Txinak XXI. mendearen hasieratik lortu nahi duen hazkunde eredu aldaketa sendotzeko daukan beharra. Esportazioen eta inbertsioaren goraldi sinestezinak hazkunde handia eragin zuen 80ko hamarkadaz geroztik, eta desberdintasun gero eta handiagoak izateari lotuta etorri zen kapitalaren eta lanaren artean, landaren eta hiriaren artean, herrialdeko hego-ekialdearen eta gainerako lurraldeen artean. 2000ko urteez geroztik, Txinak erronka hau dauka aurrean: balio erantsi handiagoko zereginetan espezializatzea eta hazkundearen fruituak hobeto banatzea, betiere barne kontsumoa bultzatuta.

Artikulu honetan erakutsiko dugunez, Txinako atzerri politikan azken urteotan hautemandako aldaketak ezin dira ulertu hazkunde ereduak aldatzeko ahalegin horren baitan ez bada. Azken urteotan, ekoiztako ondasun motan jauzi kualitatiboa eta barne eskariari bultzada emateko errenta hobeto banatzea eragingo duen hazkunde eredu bat abiarazteko ahaleginak berekin dakar, alde batetik, herrialdeak eginkizun aktiboagoa izatea eskualde mailan (edo globalean ere bai), eta, bestetik, nazioartean arrisku berriak onartu beharra.

**Hitz gakoak:** Txina, hazkunde ereduak, renminbia, banatzea.

**Abstract:** The coronavirus crisis brings to the fore the need for China to consolidate the change in its growth model sought since the beginning of the 21st century. The incredible boom in exports and investment that marked the strong growth since the 1980s was associated with growing inequality between capital and labour, between rural and urban areas, between the southeast and the rest of the country... The challenge that China has faced since the 2000s is to specialize in tasks with greater added value and a better distribution of the fruits of growth that would also boost domestic consumption.

In this article, we show that the changes observed in recent years in Chinese foreign policy must be understood in the context of this effort to change national growth patterns. The attempt in recent years to launch a growth model that involves both a qualitative leap in the type of goods produced and a better distribution of income also implies adopting a more active role for the country at the regional (or even global) level and assuming new risks at the international level.

**Keywords:** China, growth models, renminbi, income distribution.



## 1. Sarrera

Dirudienez, koronabirusa hedatzeak eragindako krisi sakonak bat-batean aldatu ditu nazioarteko harreman ekonomikoak. Oraindik zaila da krisi horrek eragin edo bizkorraziti dituen aldaketak identifikatzea eta neurtzea. Edonola ere, herrialdeen arteko eragiketa ekonomikoak hain tupustean moteldu izanak erronka gogorra jo die kanpoko eragiketen mendeko garapen ereduak zeuzkaten herrialdeei, nola esportazioek zeukaten garrantziagatik, hala atzerriko kapitalaren inbertsioak ekonomia horien ekoizpen sarean zeukan eraginagatik.

Era horretako egoera batean dago Txina. Haren esportazioen eta herrialdean sartzen ziren Atzerriko Inbertsio Zuzenen (AIZ) goraldi izugarria izan da bere hazkunde ereduaren ezaugarri ezagunenetako bat. Eredu horrekin, azken hamarkadetan mailak igotzen joan da herrialdea, harik eta gaur egun munduko potentzia handiena bihurtu den arte (BPGri dagokionez). Hala ere, 'arrakasta' horrekin batera hainbat esparrutan gero eta desberdintasun handiagoa iritsi da, besteak beste honako hauetan: irabaziek gero eta pisu handiagoa dute soldaten kaltetan, errenta altu eta baxuen arteko aldeak handitzea, eta kostaldeko hiriguneeen garapen asimetrikoa, herrialdeko erdialdearen eta mendebalde landatarragoaren garapenarekin alderatuta.

Hori esanda, ez da krisia iritsi beharrik izan garapen eredu horren josturak bistarazteko eta herrialdea norabidea aldatzera behartzeko. Txinak hamarkada bat baino gehiago daruma hazkunde ereduak aldatzeko erreformak egiten. Helburua: balio erantsi handiagoko zereginetan espezializatzea eta hazkundearen fruituak hobeto banatzea.

Dokumentu honetan, harreman sakon bat erakusten ahaleginduko gara: Txinak nazioarteko ekonomian duen zereginaren eta herrialdean ezarritako garapen ereduaren artekoa. Horren harira azalduko dugu Txinako atzerri politikan azken urteotan hautemandako aldaketak ezin uler daitezkeela herrialdea hazkunde ereduak aldatzeko egiten ari den ahalegina aintzat hartu gabe. Hasiera batean paradoxikoa izan badaiteke ere, ikusiko dugu azken urteotan barne merkatuaren eskaririk igaroko den hazkunde eredu bat abiarazteko egin den ahaleginak berarekin dakarrela herrialdeak eskualde mailan (edo are maila globalean ere) eginkizun aktiboagoa hartzea eta nazioartean arrisku berriak onartzea.

Sarrera horrez gain, artikulua lau ataletan banatuko da. Lehenengo atalean, 70eko hamarkadaren amaieratik 2000ko urteetara Txinan izandako hazkunde indartsuaren erreforma eta jarraibide nagusiak erakutsiko ditugu. Bigarren atalean, deskribatu egingo ditugu nazioarteko ekonomiaren noranzkoa birbideratzeko ahaleginak –eta lorpenak–. Ahalegin horiek herrialdearen atzerri politikan duten eragina azpimarratuko dugu bereziki. Ondoren, aldaketa horrek bidean aurki ditzakeen erronka berriak aztertuko ditugu. Azken atalean, amaierako gogoeta egingo dugu.

## 2. Txina XX. mendearen amaieran: manufaktura potentzia, esportazio sustatzailea eta desberdintasun eragilea

Txinak munduko ekonomian integratzeko prozesuan izan duen hazkunde ekonomikoaren zifra altuek eragindako harridura 90eko hamarkadaz geroztik orokortu bazen ere, hori azaltzeko 1978az geroztik abian den pixkanakako erreforma prozesua hartu behar da aintzat. Erreformaren hasieran, produktibitateak hobetzeko ahalegina aurki daiteke, bai nekazaritza arloan, bai industria arloan, bi arlo horietako kudeaketa tekniketari aldaketak txertatuz. Alde batetik, hirietan estatu enpresei agintari politikoekiko autonomia handiagoa eman zitzaizen funtzionamendu mailan. Bestalde, landa komunitateak ordezkatu egin ziren "familia erantzukizuneko sistemak" erabilita, nekazari familiei autonomia eman eta nekazaritza errendimenduak bultzatu ahal izateko.

Gainera, aipatutako familiei eta enpresei baimena eman zitzaien ekoizpenaren zati bat zuzenean merkatuan saltzeko, prezio askean, eta horrek produktibitateko pizgarri bat eragin zuen. Horri guztiari gehitu behar zaio kanpo merkataritzari ezarritako murrizketen arintze partziala (Munduko Merkataritza Erakundearen 2001ean sartu zen azkenik), bai eta 'Eremu Ekonomiko Bereziak' sortzea ere, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko, eta, erregulazio burutsu bati esker, kanpoko teknologiak biltzen joateko.

Barne mailan merkatua hedatu zen arren eta industria esportatzaileak munduko merkatuko gorabeheren eragin gero eta handiagoa jaso arren, laurogeiko hamarkadan Txinako ekonomia, neurri handi batean, estatuak zuzentzen zuen. Lau, Qian eta Roland (2000) egileen argudioen arabera, urte horietan zehar merkaturatzeko trantsizio prozesua, neurri batean, "galtzailerik gabeko" erreforma bat izan zen: industria enpresen ekoizpen hedatzea pribatizazio beharrik gabe gauzatu zen, aldi berean enpleguari eutsiz; eta nekazaritzaren produktibitatea hazteak nekazari familien diru-sarrerak handitzea ahalbidetu zuen, hirien eta landaren arteko desberdintasunak gutxituz. Horretaz gain, esportazioek eragindako diru-sarrerak handitzea lortu zen, eta, bide batez, atzerriko teknologia txertatzea, metatze prozesuaren inguruko kontrola galdu gabe.

Hala ere, urteak joan ahala, "merkatu ekonomia planifikatua" izeneko horrek bide eman zien ekonomia kapitalistei gehiago dagozkien erregulazio moduei. Hart Landsberg eta Burkett (2004, 22. or.) egileek adierazi zutenez, "behin merkatuaren aldeko erreformen bidean sartuta, erreforma prozesuko urrats berri bakoitza, neurri handi batean, erreformek sortutako tentsioek eta kontraesanek bultzatuta eman zen. Plangintza nagusia ahultzeak gero eta mendekotasun handiagoa eragin zuen merkatuarekiko eta mozkinen eragindako pizgarriekiko. Era berean, horrek enpresa pribatuak estatuko enpresen gainetik lehenestea ekarri zuen, eta, arian-arian, atzerriko enpresak eta merkatuak etxekoen gainetik lehenestea".

Horren eragina ekonomia nazionalaren egiturako zenbait alderditan nabaritu zen. Alde batetik, 90eko hamarkadaren bigarren erdian enpresen pribatizazio oldea gertatu zen. Lan arloan, bestalde, apustu egin zen *danwei* delakoa era mailakatuan desagertzearen alde –txinatar langileak bizitza osorako enpresari lotuta geratzen ziren–, enpresaren eta langilearen arteko harremana merkatu mekanismoen bidez zuzenduta egon zedin, eta, horrela, langileek galdu egin zituzten enpresa publikoek lehen helarazten zizkieten gizarte babeseko mekanismo asko.


Landa eremuan, komunak desegin zirenean, nekazariak zerbitzu publikoak eskuratu ezinik gelditu ziren. Horrek, nekazaritza produktuei ezarritako prezio politikekin eta kostaldeko hiriekiko geldialdi erlatiboarekin batera, migrazio fluxu bat eragin zuen, eta fluxu hori, azkenean, indartsu hedatuz zihoan industria elikatze eskulan iturri nagusia izan zen. Hala ere, Txinan *hukou* edo hiriko bizileku baimenean oinarritutako barne mugimenduen kontrol sistemak jarraitzen zuen agintzen. Landa eremuko biztanleentzat, *hukou* bat eskuratzea ia ezinezkoa zen. Orduz gero baldintzak zertxobait malgutu diren arren, oinarritzko eskubideak eskuratzeko baimen hori oraindik beharrezkoa denez, migratzaileen zati handi batek legezko babesik gabe lan egin behar izan du.

Migrazio presio horrek, eskasak baino eskasagoak diren baldintzetan, banatze efektua izan zuen, eta hain hazkuntza tasa handiko hazkunde ereduaren funtsezko ezaugarria izan zen hori herrialdean 90eko eta 2000ko hamarkadetan. Enpresa pribatuek nahiz estatukoek sortutako errentaren zati gero eta handiagoak bereganatzeko baldintzak zeuzkaten eskura. Mozkinen inguruko zatiaren gorakada horri kontrajarrita, soldatek BPGrekiko zuten proportzioa pisua galtzen joan zen pixkanaka. 1980ko hamarkadaren hasieratik 2007ra arte, proportzio hori 10 puntu inguru erori zen, BPGren % 42,5era iritsi arte; antzeko *per capita* errenta duten ekonomietakoa baino askoz txikiagoa.

Eta, hain zuzen ere, gero eta handiagoak ziren mozkin horiek berriz inbertitzeak ahalbidetu zuen herrialdean kapital metatze indartsua; era berean, faktore horrek azaltzen zituen Txinako hazkunde tasa handiak. 1. grafikoan ikus daitekeenez, 1980ko hamarkadaz geroztik, urteko % 15etik hurbileko tontorrekin, Txinako BPGren hazkunde tasak munduko gainerako potentzienak baino askoz handiagoak ziren; % 3 inguruko azken batez besteko tasak kateatu zituen.



1. grafikoa: BPGren hazkunde tasak (%-etan): Txina eta ELGAko herrialdeen multzoa (1976-2019)



Iturria: Munduko Bankuaren online datu basea data. [worldbank.org](http://worldbank.org)

Aipatutako migrazio presioak barne mailan ekoizpen kostuak murrizteko balio zuen bitartean, kanpo mailan herrialdeak kapitalak zorrotz kontrolatzen zituen. Horri esker, besteak beste, renminbi izeneko moneta nazionalaren truke tasa maila artifizialki baxuetan mantendu ahal zen. Hala, soldata industrialen igoera mugatuarekin batera, lehiakortasun handia ziurtatu zien herrialdeko esportazioei, kanpoko merkatuetako prezioen plazan. Baldintza horietan, Txinako ekoizpena esportaziora bideratu zen argi eta garbi, batez ere herrialde garatuetara (Estatu Batuak, Japonia eta Europar Batasuna). Orotara, Txina mendekotasun bikoitzeko ekonomia bihurtu zen, nola esportazioekiko, hala inbertsioarekiko (Zhu eta Kotz, 2010).

Baldintza horien ondorioz, literatura ekonomikoan mozkinak bultzatutako hazkunde erregimenaren adibide argizat hartu zen Txina (ikus, esate baterako, Molero-Simarro, 2015a): neurri handi batean esportazioari esker lortutako aberastasuna gero eta gehiago desbideratu zen enpresen soberakinetera, eta horrek eragin positiboa zuen inbertsio mailan, soldaten parte-hartzearen beherakadak kontsumo erantsian eragin zitzakeen balizko ondorio negatiboek baino handiagoa.

Atal honetan, azpimarratzea komeni da herrialde hori nazioarteko ekonomian txertatzea ezin dela azaldu munduko merkatu nagusietara egindako esportazioen hazkundearekin soilik. Txertatze horretan lagundu zuten beste hiru alderdi behinik behin aipa ditzakegu. Lehenik eta behin, inportazioak, txikiagoak izan arren, errekorretako erritmoan hazi ziren. Bigarren, neurri batean, inportazioen gorakada hori herrialdea balio kate globaletan mihizatze-plataforma gisa txertatzen aritzeak eragin zuen: produktuen zatiak inportatzen ziren –batez ere manufakturak–, kontsumorako salgai bihurtu aurretik herrialde barruan azken muntaia egiteko. Ildo horretan, Asiako herrialdea izan zen enpresa transnazionalen abian jarritako kanpoan kokatzeko prozesuen –deslokalizazioen– helmuga nagusietako bat. Hala ere, atzerriko inbertsioa txikiagoa izan zen kuantitatiboki, kapital osoaren metaketaren % 10 besterik ez baitzuen helarazi. Bestela esanda, nahiz eta baieztatu daitekeen Txina AIZren jomuga handienetako bat izan zela, barne mozkinak finantzatutako inbertsioak hobeto azaltzen du herrialdeak hain hazkunde maila handia izatea kanpoko inbertsio mota horrek baino.

Hirugarren eta azken alderdi bezala, hazkunde eredu horretatik sortutako elkarren arteko mendetasunak aipatu behar ditugu. 90eko hamarkadatik kontu korrontekako balantzaren izandako superabit handiei esker, Txinak 2000ko hamarkadaren erdialdean Japonia gainditu zuen, nazioarteko dibisa erreserba handienak zituen herrialdea. 2014an, atzerriko hainbat txanponetan izendatutako erreserba ofizialen arteko batura baliokidea 4 bilioi dolarrekoa zen. Gainera, Estatu Batuekin zuen aldeko harremanean merkataritza balantza hein handi batean soberazkoa izanik, erreserba horren zati handi bat zuzenean dolar amerikarretan gorde ahal zen.

Esportatzeko ahalmenagatik erreserbak dolarretan metatuta, Txinak bere monetaren edo finantza sistemaren aurkako edozein espekulazio-eraso ahultzeko gaitasuna izan du. Baina, beste alde batetik, osagarritasun harremana sortu du munduko beste potentzia ekonomiko nagusia diren AEBekin (Molero-Simarro, 2015b). Dolarretan egindako erreserben zati bat AEBetako Altxorraren Bonuak erosteko erabili du Bankuak azken hamarkadetan. Jasotako kapital sarrera horiek, Gobernu Federalaren defizit fiskala finantzatzeaz gain, zeharka, AEBetako familien, enpresen eta bankuen zorpetze gero eta handiagoa finantzatzea ere ahalbidetu zuten. Zorpetze horri esker, 2008ko krisiaren aurretik kontsumo eskaria eta ondasun higiezinak inbertsioa artifizialki mantendu ahal izan ziren. Era berean, AEBko kanpo eskaria funtsezkoa izan zen Txinak kanpoko salmentak handitzen jarrai zezan.

Laburbilduz, herrialdeak 2000ra arte gauzatu zuen hemen deskribatutako hazkunde ereduak nazioarteko dimentsio argia du. Alderdi batzuk zuzenean neur daitezke: Txina munduko lehen potentzia da BPGri dagokionez, esportazio motor handi bihurtu da, eta zuzeneko kanpo inbertsioen funtsezko helmuga. Baina haren hazkunde ereduak nazioarteko geopolitikan eragin duen inpaktua ere ikusten da: izaera osagarri horrek Txinaren eta herrialde bazkideen artean maila goreneko harreman diplomatikoak abian jartzera behartu du, tentsioak gorabehera.

Barne mailan, soldaten parte-hartzearen gaineko presioa izan arren, familien batez besteko diru-sarrera erabilgarria igo izanak kontsumoaren hazkunde absolutua eragin zuen. Hala ere, adierazle erlatiboetan BPGrekiko zuen pisua murriztu egiten zen inbertsioa eta esportazioak ezartzen zituen heinean. Gainera, erosteko ahalmena igotzea, batez ere, Txinako burgesia berpiztuak jaso zuen, zeukan errenta gero eta handiagoa inportatutako luxuzko produktuak erosiz gastatzen hasi baitzen. Desberdintasuna hainbeste hazteak isla zuzena izan zuen Gini indizearen bilakaeran: 1984an 0.277koa izatetik 2007an 0.49koa izatera igaro zen.

Hala eta guztiz ere, maoisten garaian bereizgarria izandako «igualitarismoa» desberdintasunek eragindako hazkundearekin sakrifkatze horren ordaina ongi baino hobeto berdintzen duela argudia daiteke herrialdeko pobrezia zifrak jaitsi izanak. Hala ere, lorpen hori zalantzan jar daiteke, hein batean; eta hiru arrazoiengatik, hain zuzen ere. Lehenik eta behin, legez kanpoko baldintzetan gauzatutako landa migrazioak, batetik, eta hiri eremuan enpresa publikoak desegiteak, bestetik, zerbitzu publikoak eskuratzeko ahalmena galtzea ekarri du. Horren ondorioz, familiek aurrezki osagarria behar izan dute osasun edo hezkuntza gastuei aurre egiteko. Bigarrenik, azken hogeita hamar urteetan izan den beherakadaren proportzio handi bat lehenengo nekazaritza erreformen ondorioz landa ingurune bizi-baldintzak hobetzeari esker lortu zen, baina orduz geroztik ia gelditu egin da. Azkenik, industria garapen handiak berarekin ekarri du gizarte bazterketako prozesuekin lotutako hiri-pobrezia fenomenoak pixkanaka sortu izana.

### **3. XXI. mendeko “garapen zientifikoaren” eta “gizarte harmoniatsuaren” aldeko apustu berria**

Txinan XXI. mendearen hasieratik hazkunde eredu birbideratzeko urratsak ematen ari baziren ere, trantsizioa motela eta zalantzakoa izan zen. 2008an hasitako krisi garaian argi ikusi zen artean ere nagusi zen eredu esportazioen eta inbertsioen mendekoa zela, eta urte horietan eredu horrek muga eta tentsio handiak agertu zituen. Lehenik eta behin, nazioarteko merkataritzaren geldialdiak nabarmen utzi zuen Txinak kanpo eskariarekiko mendekotasun handia garatu zuela. Krisialdiak berehala egin zuen eztanda nazioko ekonomian, AEBetara eta Europara egindako esportazioak % 13 eta % 23 jaitzita, hurrenez hurren, 2008tik 2009ra bitartean. Horrek nabarmen gutxitu zuen haren kontu korronteko balantzaren saldo positiboa.

Bigarrenik, hazkunde maila altuak era jarraian lortzeak zaila zirudien, baldin eta herrialdeak balio erantsi txiki eta ertaineko manufakturak mundu osorako mihizatze eta esportatzeko profila sendotzearen aldeko apustua egiten jarraitzen bazuen. Ez soilik horrek produktibitatean ekar zitzakeen aurrerapen mugatuengatik; izan ere, nazioarteko panoraman Txinarekin merkatu horiengatik borrokatze gaitasuna zuten lehiakideak agertzen ziren.

Gainera, eta adierazi dugun bezala, agerian geratu zen Txinako hazkundera hainbat mailatan desberdintasuna betikotzen eta areagotzen zuten patroien mendeko bihurtu zela: hiri arloaren eta landa arloaren artean, kostaldearen eta gainerako lurraldeen artean, kapitalaren eta lanaren artean, eta exekutiboen soldaten eta eskulangileen soldaten artean.


2000ko hamarkadaren hasieran, Txinako Alderdi Komunistako buruzagien laugarren belaunaldiak, Hu Jintao (herrialdeko presidentea eta Alderdiko idazkari nagusia) eta Wen Jiabao (lehen ministroa) buru zituela, erreforma prozesua birbideratzeko erronka hartu zuen bere gain. Haren agintaldiak iraun zuen hurrengo hamar urteetako (2003-2013) ekintza politikoa gidatuko zuten bi kontzeptu berritzailetan oinarrituko zen: "garapen zientifikoa" bultzatzeko beharra, "gizarte harmoniatsua" eraikitzeke helburuarekin. Lehenengo kontzeptuak ekoizpen jarduera industria adarretara eta balio erantsi handiagoko zerbitzuetara bideratzea zekarren, berrikuntzako eta garapen teknologikoko jarduerari lagunduta. Bigarren kontzeptua hazkunderaren fruituak hobeto banatzeari buruzkoa zen, hirien, landa eremuen eta probintzien arteko desberdintasunak gutxituz, era horretan gizarte egonkortasuna bermatzeko. Era osagarrian, espero zen banaketa eredua hobetzeak Txinako ekonomia neurri batean barne merkatura bideratzeko aukera emango zuela, nekazarien eta hiriko langileen kontsumorako eskura zegoen errenta handitzeari esker. Horrela, gutxitu egingo zirela uste zen bai esportazioekiko mendekotasuna eta bai hazkundera prozesuak eskariaren aldetik jasaten zuen inbertsioa.

Banatzeko helburu horiekin, herrialdearen egitura ekonomikorako garrantzi handiko erreforma batzuk egin ziren. Besteak beste, 2006an nekazaritza zerga garrantzitsuenetako bat indargabetu zen, 2008an langileen eskubideen babes maila handiagoa bermatzen zuen lan erreforma onartu zen, eta, osasun sistemari dagokionez, 2009an aldaketak onartu ziren, landa eremuko biztanleen oinarritzko osasun babesak bermatzeko. Handik urte batzuetara, garrantzi handiko aldaketak gertatu ziren errenta banatzearekin zuzenean lotuta. Alde batetik, 2011n gizarte segurantzaren lege bat onartu zen, langabezia eta erretiro prestazioak zabaldu zituen; errentaren gaineko zergan salbuetsitako gutxienekoa gehitu egin zen, eta probintzietako gutxieneko soldatak handitu ziren. Bestalde, 2013an adostutako "errenta banatzeko mekanismoak erreformatzeko printzipio-giden" barruan honako hauek jaso zituzten: lurrak desjabetu zizkieten nekazari bermeak ematea, landa eremuko migratzaileak hiri biztanle gisa erregistratzeko baldintzak lasaitzea, funtzionarioen soldatak handitzea, enpresa txikiei zergak murriztea, burtsan kotizatzen duten enpresek dibidenduak bana ditzaten sustatzea, interes tasak gero eta gehiago liberalizatzea, gizarte segurantzaren gastua handitzea; administrazio publikoko kideen diru-sarrerak eta aktiboak gehiago kontrolatzea, Estatuako enpresetako langileen soldatak handitzeko mugak, enpresek Estatuari ordaindu behar dizkieten irabazien ehuneko % 5eraino igotzea, horrekin gizarte segurantzaren sistema finantzatu ahal izateko, eta jabetzaren gainean, kontsumoaren eta herentzien gainean luxuzko produktuei ezarritako zergak pixkanaka zabaltzea (Molero-Simarro, 2016, 227. or.).

Erreforma multzo horri gehitu behar zaio Gobernuak eta Txinako Herri Bankuak (herrialdeko banku zentrala) 2008az geroztik munduko finantza krisiari erantzuteko aplikatu duen zerga eta moneta pizgarri gisa hartutako neurri sorta. Probintziako eta estatuko gobernu nazionalen esku 4 bilioi renminbi inguru jartzeak eskaria piztea zuen helburu, batez ere azpiegiturretan inbertituz, hazkundera tasei eutsi eta esportazioen beherakada konpentsatu ahal izateko, nazioarteko merkataritza eta finantza harremanen bat-bateko moteltzeak markatutako testuinguruan. Finantza-krisiaren ondoren Txinako ekonomiaren motelaldia agerikoa bada ere, pizgarri horiei esker, azken urteotan % 7 inguruko tasetan hazi da herrialdea, munduko beste potentziak baino askoz ere erritmo biziagoan.

Birbanatzeko neurrien irismena moderatua izan zen erreformaren lehen urteetan, baina, pixkanaka-pixkanaka, zenbait alderditan joera aldaketa izan zen estatistika nazionalen. Lehenik eta behin, kontsumo pribatuak BPG nazionalen zuen pisuak 1990eko hamarkadaren erdialdetik hasitako beheranzko joera atzean utzi zuen, eta 2010az geroztik susperraldi txiki bat hasia du, inbertsioaren kaltetan. Hori neurri batean azaltzen du BPGren faktore banaketan soldatak apur bat biziberritu izanak (2. grafikoa).

2. grafikoa: Soldataren parte-hartze eboluzioa, 1978-2007 eta 2009-2017



Iturria: 1978-2007 aldirako: Molero-Simarro (2015a). 2009-2017 aldirako: National Bureau of Statistics of China: China Statistical Yearbook, 2009tik 2018rako edizioak. 2008 aurreko eta 2008 osteko serieak ezin dira zuzenean alderatu, NBSCh erakundeak urte horretatik aurrera sartutako aldaketa metodologiko baten ondorioz.

Beste desberdintasun adierazle batzuei begiratuta, badirudi aldatu egin dela Txinak 80ko hamarkadatik ezaugarri izan zuen hazkundearen eta desberdintasunen arteko lotura. Adibidez, aintzat hartuz gero batez besteko etxe urbanoaren eta landa etxearen arteko diru-sarreraren arteko aldea, hazten joan zen bi hamarkadatan 2009ra arte, bien arteko ratioa 3.3 izatera iritsi zen arte. 2016an, aldea 2.71ra jaitsi zen<sup>1</sup>. Era bertsuan, Urbanek ere (2013) antzeman zuen errenta mailen arteko desberdintasuna murriztu egin zela herrialdean mendebaldeko eta erdialdeko probintzia atzeratuen eta ekialde kostaldeko probintzia puntakoen artean. Bestalde, Giniren indizeak ere behera egin zuen: 2007an 0.49koa izan zen, eta 2015ean 0.46koa. Hala ere, oraindik oso urrun daude 80ko hamarkada hasieran erregistratutako berdintasun mailak.

Kontsumoaren bultzada inportazioetara aldarazi zen hein batean. Horrekin, esportazioen bilakaera okerrarekin batera, eragotzi egin da herrialdearen superabiteko merkataritza balantza ekonomiaren motor nabarmena izatea azken bost urte baino gehiagoan, munduko krisialdia iritsi zen arte izan zen era berean. Izan ere, Txinako urteko kontu korronteko soberakina BPG nazionalaren % 10 ordezkatzetik % 2 ingurukoa izatera igaro da azken urteotan.

Hori azalduta, merkataritza balantza narriatzea ez da, inola ere, antzeman daitekeen aldaketa bakarra Txinak munduko gainerako herrialdeekin dituen harreman ekonomikoaren esparruan. Lehen adierazi dugun bezala, lotura estua dago Txinak nazioartean duen zereginaren eta haren hazkunde ereduaren artean; horren harira, azken urteotan bigarren horretan izandako noranzko aldaketak lehenengoaren eraldatze esanguratsua ekarri du.

Soldata ikotzea edozein ekonomiatan inbertsioaren errentagarritasun mailetan eragina izan dezakeen arazo gisa planteatzen da, baldin eta produktibitatea horrekin batera handitzen ez bada. Txinari dagokionez, agintariek nahi zuten hazkunde eredu berriaren ezaugarrietako bat zen errenta baxuen aldera gehiago jotzen zuen errenta banatzea, errenta handien kaltetan –hala nola kapitalarenak–. Horri erantsi behar zaio kapital kontua gero eta liberalizatuago izatea; hala, zaildu egiten da kanbio tasa manipulatzeko, munduko eskariari dagokionez barne kostu txikiei eusteko. Era horretan, bizkortu egin da balio erantsi txikiko

1 Txinako Estatistika Bulego Nazionalen oinarritutako kalkulua.

jarduerak kanpora ateratzea, Txinaren auzoko herrialdeetara. Hori da Txina atzerriko inbertsio zuzenen «esportatzaile» gisa agertu izana azaltzen duen fenomenoetako bat, batez ere XXI. mendearen hasieratik 2015era bitartean. Era berean, gorakada horren zati bat azaltzen dute beste kontinente batzuetan –Afrika kasu paradigmaticotzat hartuta– epe luzera lehen mailako baliabideak –besteak beste energia– eskuratzea bermatzeko abian jarritako proiektu estrategikoek: Zerrendaren eta llibidearen Ekimena («Zetaren llibide Berria» ere deitua), Azpiegituretako Inbertsiorako Asiako Bankua, BRICS Garapen Bankua, etab. Azkenik, gogoan izan behar da Txinak areagotu egin duela herrialde garatuetako enpresak erostea, eta kontu horrek kezkatu egiten dituela herrialde horietako agintari publikoak.

Atzerriko merkataritzan eta inbertsioen fluxuan izandako bi eraldaketa handi horiek argi adierazten dute herrialdeen arteko harreman ekonomikoak areagotzeko joera dagoen munduko ekonomian Txinak jokatzeko duen zeregin mota zein den. Asiako erraldoia, atzerriko kapitalari ekoizpen kostu txikiak bermatzen dizkion potentzia esportatzailetzat hartu ez ezik, pixkanaka, Txina eskari eta inbertsio kapitalen iturri gisa agertzen joan da herrialde bazkideentzat, eta, horrela, nazioz gaindi garatzen diren kapital metatzeen dinamikak aldatzen joan dira.

Hala ere, aldi berean, inportazioak eta kanpoan egindako inbertsioak hazi izanak Txina duela urte gutxira arte eskura zeuzkan bi dibisa iturri nagusiak gabe uzten du: merkataritzako soberakin izugarriak eta munduko gainerako herrialdeetatik sartzen ziren inbertsioak.

Illo horretan, mende hasieran bere finantza kontua irekitzen eta liberalizatzen hasi izana gerta daiteke iturri berri bat, beharbada, atzerriko kapitala sar dadin eta herrialdearen azkenaldiko hazkunde estrategiaren baitan nazioartean duen eragina hedatu dadin. Finantza liberalizazioarekin batera, eta horri estu lotuta, Txinak renminbi moneta nazionalaren nazioartekotzea sustatu du. Dolar estatubatuarra, euroa, yen japoniarra edo libera esterlina bezalako txanponen alde eraikitako nazioarteko moneta sistema guztiz asimetrikoan, ez dago errezeta argirik herrialde edo eskualde batek bere monetaren nagusitasuna norbere nazioko mugetatik harago zabal dezan lortzeko. Nolanahi ere, zenbait egileren arabera, moneta nazionala beste herrialde batzuetako enpresen, gobernuen eta familien artean onartua izan dadin, finantza inbertsio erakargarriak egiteko aukera zabaldu beharko du (Faudot, 2016). Horregatik, moneta nazioartekotzeko aurrebaldintza izan ziren Txinako finantza merkatuaren liberalizazioa eta garapena.

Illo horri jarraiki, zehaztu beharra dago Txinak bere lurraldean ez duela liberalizazioa bat-batean aplikatu. Politika horren funtsezko mekanismoetako bat moneta nazionala munduan zehar banatuta dauden offshore zentroetan sustatzea izan da. Hong Kong izan zen Txina kontinentaletik kanpo barruan onartzen ez ziren operazioak egiteko baimena izan zuen lehen finantza zentroa. Hala ere, renminbiarekin lan egiteko nazioarteko finantza zentroen sarea zabaltzen joan zen (Gaulard eta Vallet, 2016) –Londres, Geneva, Paris, New York–, estatu mailan kapital kontrol zorrotzagoa aginduz jarraitzen zuen bitartean. Horren erakusgarri, Txina kontinentalaren barruko eta kanpoko finantza erregulazioaren arteko irizpide desberdinen adibide gisa, 2009an Txinak renminbiaren erabilera inguruko herrialdeetara esportatzeko egin zuen ahalegina azal dezakegu. Hong Kongen yuanetan nazioartekotze eragiketak zentralizatzeko baimena 43 bankuk zuten aldi berean, Txina kontinental osoan baimen hori hamaika banku nazionalak eta zazpi atzeritarrek soilik zeukaten (BBVA Research, 2009).

Bi erregulazio desberdin finkatzeak –bata merkaturako legeen arabekoa, bestea murriztaileagoa– Txinako monetaren bi truke tasa eragin zituen: bata barnekoa, eta bestea kanpoko. Hala ere, truke tasa baten eta bestearen arteko aldea nahiko egonkorra eta txikia izan da, 2010-2016 aldiko une jakin batzuetan izan ezik. Hiru arrazoi daude hori azaltzeko. Lehenengoaren arabera, tasa baten edo bestearen artean arbitratzeko aukerak eragotzi egiten zuen dibergentzia handia izatea. Bigarren arrazoiak azaltzen duenez, oster, Txinako agintariak «barneko» truke tasaren fluktuazio tarteak leuntzen joan dira: 1994-2005 aldian dolarrarekiko truke guztiz zurrunez hasi eta gaur egun % 2ko eguneroko fluktuazio banda ezarri arte. Hirugarren arrazoiak, zalantzarik gabe garrantzi handienekoa, herrialdeko agintariak barneko finantza plazak (edo «onshore» delakoak) offshore plazekin uztartzeko duten borondatea da, ordainketa sistema propio bat abian jarri, onshore plazak munduko gainerako tokietara gero eta gehiago zabalduta.

Era berean, Txinako gobernuak ahalegindu da RMBaren nazioarteko eragina sustatzen ere, munta handiko akordio instituzionalen bidez. Alde batetik, 2016az geroztik moneta nazionala Nazioarteko Diru Funtsean

Igortze Eskubide Bereziak (IEB) osatzen dituzten moneten saskian sartuta dago, eta kopuru osoaren % 10.92 ordezkaten du (NDF, 2017). Bestalde, Txinak lankidetzat itun ugari sinatu ditu nazioarteko herrialde eta finantza erakundeekin, hala nola Munduko Bankuarekin, Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankuarekin eta BRICS Garapenerako Banku Berriarekin, eta azken horrek RMBri nazioartean hedatzeko aukera ematen dio. Ildo horretan, 2017rako, Txinak gutxienez 36 herrialderekin sinatu zituen dibisen aldeko eta alde anitzeko truke lerroak (IMI, 2017). Horren bitartez, renminbiaren nazioarteko erabilera bultzatzeaz gain, atzerriko funtsez hornitzen ditu Txinako agintariak euren merkataritza eta inbertsio eragiketarako finantza ditzaten.

Azalpen honetara iritsita, nazioartekotzeari dagokionez zehaztu beharra daukagu, era askotako ahaleginak egin arren, emaitzak ahul samarrak direla. Esate baterako, herrialdeek adierazitako diru erreserbei erreparatu gero, Txinako moneta 2020an kopuru osoaren % 2a soilik osatzen du.<sup>2</sup> Egia esan, 2010az geroztik, renminbiak indar handia hartu du nazioarteko merkatuetan; beraz, Nazioarteko Ordainketa Bankuaren 2016ko hiru urteko inkestaren arabera, renminbiak dibisen merkaturatzearen saldutako zortzigarren txanpona zen Mexikoko pesoaren gainditu du, haren lekua hartuz, franko suitzarraren eta dolar kanadarraren atzetik, hain zuzen. Areago dena, munduko moneta erabiliaren artean, 2010etik 2018ra bitartean 35. postutik 5. eta 7. postuen artean egotera igaro zen.<sup>3</sup> Hala ere, emaitza horiek, oraingoz, apalak dira munduko bolumen handieneko ekonomia nazionala denarentzat.

Dena dela, merkataritza, finantza eta erakunde mailan, Asiako erraldoiaren atzerri politika ekonomikoaren noranzko aldaketa horrek ez du banaketa geografiko homogeneorik izan. Txinak bere eragina eskualdeetara hedatzea lehenetsi du. Nabarmen islatu da hori erakunde mailan igorri duen proposamen sortan, besteak beste, ASEANekin (Association of South-East Asian Nations) eta Chiang Mai Initiativeko kideekin izandako harremanak sarituz. Baina, zalantzarik gabe, eskualde proiektio horren adibide paradigmakoa Zetaren Ibilbide Berriaren Ekimena (edo ingelesez Belt and Road Initiative, BRI) Txinak lider moduan abiarazi izana da. 60 herrialde baino gehiago barnebiltzen dituen epe luzeko inbertsio eta merkataritza proiektu itzela da, munduko BPGren erdia baino gehiago ordezkaten duena. Ekimen horretan, azpiegiturek badute zeresana partaide diren herrialdeen artikulazioan eta dinamizazio ekonomikoan. Hala ere, proiektu honen geopolitika alorreko inplikazioak neurri handikoak dira. Eta hori, hiru arrazoigatik bai behintzat. Lehenik, Mendebaldearen inguruan eraikitako munduko ekonomiaren erdialde-periferia eskemari aurre egiten dio. Bigarrenik, Txinaren proiektio ekonomikoa eskualdeko potentzia hegemoniko gisa zedarritu du. Hirugarrenik, ekimenean aurreikusitako etorkizuneko inbertsioek eragindako eremuen kontrolari dagokionez, agerian uzten ditu tentsio politiko-militar berriak.

## 4. Hazkunde estrategia berriari lotutako arriskuak eta tentsioak

Txinak balio erantsi handiko sektoreetan oinarritutako hazkunde eredu baterantz urratsak egin ahala, galdera berriak sortzen dira proposatzen duenaren arrakasta probabilitateei buruz, bai eta politikaren, ekonomiaren edo ingurumenaren esparruetan sortu -edo larriagotu- daitezkeen tentsioei buruz ere.

Hasteko, oraingoz, onar dezagun oraintsu Txinak arrakasta lortu duela munduko beste potentzia ekonomikoek baino hazkunde tasa handiagoei eusten, are koronabirus garaian ere. Hazkunde tasa horiek mantenduz gero, Ameriketako Estatu Batuen eta azken hamarkadetan nagusi izan diren mendebaldeko beste potentzien errezeloa –are gehiago– elikatzen joango da. Lehen esan dugun bezala, Txina 90eko hamarkadan munduko potentzia gisa agertuta, eta hori nola egin zuen ikusita –esportazioen truke AEBetako dolarretan errekorreko erreserba kopuruak metatuz–, Estatu Batuekin hitz egin beharra zeukan ezinbestean. Pentsatzekoa da, besteak beste, eskualde mailan bere lidergoa sustatzean oinarritutako apustu berriak berriro ere mesfidantza eragingo diola haren bazkide eta aurkari nagusiari (Bustillo eta Maiza, 2018). Arlo horri dagokionez, gogoratu beharra dago bi herrialdeak merkataritza mailako negoziazio erronda batean sartuta daudela, zeinetan ezaugarri nagusi diren elkarrekiko mesfidantza eta bietako inor aseta utziko duen ituna itxi ezina.

---


2 2020ko bigarren lauhilekorako NDFren kalkuluak (NDF, COFER).

3 Ikusi dibisa merkatuari buruz 2018ko martxoan eta 2011ko azaroan egindako SWIFT txostenak.

Hala ere, geure buruari galdetu behar diogu hurrengo urteetan nazio hazkunde maileri eusteko izango duen gaitasunari buruz ere. Literatura ekonomikoan, galderak sortzen ari dira, soldata handiagoek edo truke tasa nazional garestitu batek epe ertain eta luzeko inbertsioan izan ditzaketen ondorio negatiboen inguruan (ikus, esate baterako, Woo, 2012, Ceglowski et al, 2015). Izan ere, azken urteetan behatu izan denaren arabera, dagoeneko inbertsio erritmoa jaisten ari da. Horren jatorria herrialdean oraingoz etekinik gabe instalatutako ekoizpen ahalmena da, edo herrialdeko inbertsio guztiei eragiten dien errentagarritasun beheraldia (Gaulard, 2015).

Beraz, baldin eta Txinak hazkunde maila altu samarrak izaten jarraitzen badu, baliteke ez izatea produktibitate mailak handitzeagatik, baizik eta lehen esan dugun bezala, munduko krisiaren ondorioz kreditua eta inbertsio publikoa aurrekaririk gabe hedatzeagatik. Politika horren emaitza izan da herrialdearen zor publiko maila, azken hamarkadetan nahiko ahula zena, asko handitzea, herrialde garatuetan ohikoak diren mailetaraino (Garcia Herrero, 2015). Baina Gobernu zentrala ez da izan krisia hasi zenetik gero eta gastu handiagoa egin duen bakarra; banku maileguak erabiltzea debekatuta izan arren, tokiko gobernuak herrialdeko palanka-efektu finantzario gero eta handiagoaren protagonista nagusiak izan dira. Adierazitako debekua saihesteko, tokiko gobernuak finantza tresna paraleloak sortu zituzten –Tokiko Gobernuak Finantzatzeko Bitartekoak izenekoak (LGFV, ingelesezko siglekin)– mailegua eskatzeko eta beste edozein agentek bezala inbertitzeko (Lu eta Sun, 2013). Zor publikoaz gain, zor pribatua ere gehitu behar da, eta erakunde ez-finantzarioena zehazki, krisiaz geroztik eta 2015era arte, gutxienez, indar handienez hazten joan zena. Hogeita hamar herrialde baino gehiagori dagozkien Nazioarteko Ordainketa Bankuaren estatistiken arabera, Txina izan zen 2009tik 2015era bitartean agente pribatuei emandako kreditua –BPGri dagokionez– gehien hazitako herrialdea (ikus 3. grafikoa). Egoera horrek oso bestelakoa izan zen 2002-2009 aldian bitartekoa. Garai hartan, garatutako eta garatzen ari ziren ekonomia gehienak ez bezala, Txinako kreditu mailak geldirik zeuden.

3. grafikoa: Eragile pribatuentzako kredituaren aldakuntza, BPGri dagokionez, 2002-2009 eta 2009-2015 aldietan.



Iturria: Barredo-Zuriarrainen (2019) eta Nazioarteko Ordainketa Bankuaren datuak.



Horrek guztiak arazo bat baino gehiago eragiten du. Finantza hedapeneko testuinguru horretan egindako inbertsioetako batzuk, batez ere LGFVekin egindakoak, higiezinaren sektorerara bideratu dira, eta espekulazio burbuila bat eragin dute azken urteotan, higiezinaren merkatuan lehenik, eta finantza merkatuan ondoren (Tu, 2016). Higiezinaren sektoreko prezioen mailaren bilakaera ezegonkorra eta noizbehinkako desinbertsioek laster burbuila finantzarioa lehertu egin daitekeela pentsarazten digute; horrek kinka larriarri jarriko lituzke zorpetze handiko inbertitzaile pribatu eta publiko txinatarrek.

Horretan dabilta herrialdeko gobernuak eta banku zentralak azken urteotan: espekulazioaren burbuila husten saiatzen ari dira, baina burbuilak ezanda egitea saihestuz. Hori dela eta, alde batetik, finantza erregulazioa gogortu egin nahi da, arrisku sistemikoa ugarituko duten espekulazio praktikak saihesteko. Baina, bestalde, kreditu berriak ematean tupusteko moteltzeak ekiditeko, ezin dute aukeratu kreditua indargabetu eta burbuila zulatatu dezaketen interes tasen bat-bateko igoerarik.

Zor maila altuak eta aktibo 'puztuen' prezioak kudeatzea zaila gutxi ez, eta horri erantsi behar zaio moneta nazionala nazioartera zabaltzeko ahaleginak berak eragiten duen tentsioa. Zalantzarik gabe, renminbiaren erabilera bere mugetatik haratago hedatzeak lehen aipatu ditugun abantaila handiak dakartza. Baina politika ekonomikoko tresnak helburu horren zerbitzura jartzea ere badakar. Txinako monetaren aktiboak munduko gainerako herrialdeetan biderkatu ahala, handitu egiten da moneta horrekiko konfiantza galtzeak Txinako ekonomian eragin dezakeen arriskua. Baldin eta, 2016az geroztik behin baino gehiagotan gertatu den bezala, dibisen merkatuan iritzi zabaldua bada renminbiaren balioa gehiegi handitu dela, banku zentralak bere dibisen erreserbak eta interes tasa erabili behar ditu, kanbio tasari ez ezik, Txinako finantza tituluen merkatuari ere eragin diezaiokien edozein kapital irteera kontrolpean izateko.

Dibisen erreserba ofizialen lehenengo tresna horri dagokionez, kontuan izan behar dugu herrialdean egindako finantza liberalizazioak berekin dakarrela, besteak beste, banku zentralak bitartekaritza lan murriztagoia izatea truke eragiketetan. Beraz, erreserbak hazten ari diren arren, Txinako finantzen nazioartekotzea baino erritmo motelagoan hazten dira; hau da, bankuen izualdi larriei begira, erreserbak gero eta urriagoak dira. Txinako Herri Bankuak erabil dezakeen bigarren tresna interes tasa da: tasa hori altu mantentzeak Txinako monetarekiko nazioarteko konfiantza indartuko luke.

Hala ere, azken puntu horretan barne politika ekonomikoaren eta kanpo politikaren helburuen arteko tentsioa aurkitu dugu. Alde batetik, hazkunde eta enplegu maila altuei eustea, eta espekulazio burbuilak tupustean ezanda egiteko arriskua ekiditea; horretarako beharrezkoa da, besteak beste, interes tasa txikiei eustea. Beste alde batetik, ohartarazi berri dugunez, tasa txikiak renminbia nazioartekotzeko helburuaren aurka jokatzen dute. Hori dela eta, Txinako agintariak lan zaila dute datozen urte hauetan, barne errealitate ekonomiko zaurgarriaren eta atzerriko kapitalak erakartzeko beren monetan konfiantza indartzeko beharrezko koordinazio zaila.

Arrisku horri barne gatazka sozialak hedatzeko arriskua gehitu behar zaio. 2013az geroztik herrialdearen lidergoan izandako aldaketak, Xi Jinping presidente postura eta Li Keqiang lehen ministro postura iritsita, Huk eta Wenek bultzatu zituzten errentaren barne birbanatzerako politikak geldiarazi egin zituen. Nekazariarentzako luraren jabetza eskubideak indartu ziren, eta landa-eremuko migratzaileek hirietan jasandako murrizketak gutxitu. Hala ere, burgesia esportatzailearen presioak ordura arte gertatzen ari ziren lan hobekuntzak geldiaraztea eragin zuen. Oro har, errenta mailako desberdintasunaren murrizketa moteltzen hasi zen.

2020ko maiatzean, Xik "zirkulazio dualaren" estrategia abiarazi zuen, eta horrekin batera, balio erantsi handiagoko esportazio jarduerak bultzatu nahi zituen, barne ekoizpena, banaketa eta kontsumoa gehiago garatuta, kanpokoarekiko mendekotasuna murrizten jarraitzeko helburuarekin. Hala ere, horrelako estrategia batekin batera birbanatze politikak ezarri behar dira, errenta ertain eta baxuko familien diru-sarrerak sustatzeko aukera izan dadin. Hori egin ezean, porrot egiteko arriskua bikoitza izan daiteke: ekonomikoa eta soziala.



## Ondorioa

Txina lau hamarkadatan dabil hazkunde erritmo altuan, eta, horren ondorioz, munduko BPG handiena duen herrialdea da (erosteko ahalmenaren parekotasunean). 80ko hamarkadaz geroztik, ekonomiaren susperraldia esportazioak eta inbertsioa sustatzeko estrategian oinarritu zen, testuinguru honetan: soldatei eusten, klaseen artean eta lurraldeen artean desberdintasun gogorrekin.

Hala ere, XXI. mendearen hasieratik hazkunde eredu berrien alde egin du apustu, dagoeneko azaldu dugun "garapen zientifikoan" eta "gizarte harmoniatsua" bilatzean oinarrituta. Horrek berarekin ekarri zuen, inbertsio pribatua bideratzeko eta sortutako errenta banatzeko erronkak ez ezik, nazioarteko ekonomian zuen zeregina guztiz birkonfiguratzea ere.

Emaitzak aintzat hartuz gero, ekonomiari dagokionez pixkanakako eraldaketa arrakastatsua izaten ari da. Apurka hazkunde tasa hobeak erregistratu arren, jarraitu egiten du Asiako kontinentean munduko potentzia eta eskualdeko erreferente gisa sendotzen. Gainera, azken hamarkada honetan nolabaiteko berrorekatze bat antzeman da, langile klasearen eta kapitalaren artean ez ezik, baita herrialdearen ekialdeko eskualdeen eta gainerakoen artean ere.

Oro har, azkeneko lau hamarkadetan kapital metatzearen eta hazkunde prozesua bizkortzeko Txinak izan duen gaitasunak ez du inolako parekorik gaur egungo munduaren historian. Erreforma ekonomikoko politikak era mailakatuan ezarri izanak (plangintza zentralizatutik merkatu ekonomietara igarotzeko Ekialdeko Europako herrialdeetan aplikatutako "shock terapiak" kontrajarrita) herrialdearen garapen prozesuari eusteko aukera eskaini dio Txinako Alderdi Komunistari, eta, aldi berean, Txinak nazioartean rol nagusia berreskuratu izana eta bertako biztanleen gehiengoak bizi baldintzak nabarmen hobetzeko egokiera ahalbidetu du.

Hala ere, Asiako herrialde nagusia oraindik ez da gai izan gaur egun dauden desoreka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. Historikoki, agintari txinatarrek aurrez aurre izan dute dilema bat: lehenasuna zeini eman, kanpoko arazoak konpontzeari ala barneko arazoak konpontzeari. Txinak jasan beharreko presio geopolitiko askotarikoak (batez ere AEBtan Trump presidente izatera iritsi zenetik izan duten jarrera oldarkorrean jarraituz gero) nekez bildu ahal izango dira, baldin eta aldi berean gizarte desberdintasunak eta barne gatazkak baretzen ez badira.

## Bibliografia

- BBVA Research. (2009): "RMB cross-border trade settlement scheme: What are the potential implications?" Economic Observatory, 23 September 2009.
- BARREDO-ZURIARRAIN, Juan. (2019): "The Nature of Capitalist Money and the Financial Links Between Debt-Led and Export-Led Growth Regimes", *New Political Economy*, 24:4, 565-586, DOI: 10.1080/13563467.2018.1472563.
- BUSTILLO, Ricardo eta Andoni Maiza. (2018): "China, the EU and multilateralism: the Asian Infrastructure Investment Bank" *Revista Brasileira de Política Internacional*, 61(1).
- CEGLOWSKI, J, Mbaye, A.A., Golub, .S eta V. Prasad. (2015, October): "Can Africa compete with China in manufacturing? The Role of Relative Unit Labor Costs" (Working Paper 201504) World Bank Group, DPRU.
- FAUDOT, Adrien. (2016): "L'Internationalisation du Renminbi: Enjeux et Limites des Réformes Institutionnelles". *Revue d'économie financière*, 121, 305-326, <http://dx.doi.org/10.3917/ecofi.121.0305>
- GARCIA HERRERO, Alicia. (2015): "Internationaliser la monnaie tout en s'endettant massivement: le cas de la Chine". *Revue d'économie financière* 119, 121-140.

- GAULARD, Mylène. (2015): "A Marxist Approach to the Middle-Income Trap in China". *World Review of Political Economy*, 6(3), 298-319.
- GAULARD, Mylène eta Guillaume Vallet. 2016: "Une Remise en Question du Rapprochement Financier entre la Chine et la Suisse", *Revue Économique et Sociale*, .1
- HART-LANDSBERG, Martin eta Paul Burkett. (2004): *China y el socialismo. Reformas de mercado y lucha de clases*. Bartzelona: Hacer. 2006.
- INTERNATIONAL MONETARY INSTITUTE, (2017): "RMB Internationalization Report", (Research report, No. 1702), Renmin University of China.
- LAU, L.J.; Qian, Y.; eta G. Roland (2000): "Reform without Losers: An Interpretation of China's Dual Track Approach to Transition". *Journal of Political Economy*, 108(1), 120-143.
- LU, Y. eta T. Sun. (2013): "Local Government Financing Platforms in China: A fortune or Misfortune." (IMF Working paper no.243), International Monetary Fund.
- MOLERO-SIMARRO, Ricardo. (2015a): "Functional distribution of income, aggregate demand, and economic growth in the Chinese economy, 1978–2007". *International Review of Applied Economics*, 29(4), 435-454.
- MOLERO-SIMARRO, Ricardo. (2015b): "Desigualdad social, complementariedad con EE.UU. y contradicciones frente a la crisis: Los límites del modelo chino de crecimiento", en MATEO, Juan Pablo. 2015, *Capitalismo En Recesión. La Crisis En El Centro Y La Periferia De La Economía*, MAIA Ediciones.
- MOLERO-SIMARRO, Ricardo. (2016): "China, ¿Una alternativa al neoliberalismo?" *Pensamiento al Margen*, 4. zk., 215-235 or.
- NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA, (2017): Review of the Special Drawing Right (SDR) Currency Basket, <https://www.imf.org/en/About/Factsheets/Sheets/2016/08/02/19/35/Review-of-the-Special-Drawing-Right-SDR-Currency-Basket>
- SWIFT (2011): November. "SWIFT RMB Tracker", <https://www.swift.com/es/node/11096>
- SWIFT (2018): January. "SWIFT RMB Tracker", <https://www.swift.com/es/node/11096>
- TU, L. (2016 October 6): "China property bubble could cause \$600 billion in bad debts", Bloomberg. <http://www.bloomberg.com/news/articles/2016-10-06/china-property-bubble-could-cost-banks-600-billion-in-bad-debts>, [2020ko urriaren 13an eskuratua].
- URBAN, M. (2013): La Compétitivité de la Chine face à la Hausse du Coût des Facteurs de Production. Bulletin Economique Chine 54, Ambassade de France en Chine.
- WOO, W. T. (2012): China meets the middle-income trap: the large potholes in the road to catching-up. *Journal of Chinese Economic and Business Studies* 10(4), 313-336.
- ZHU, A. eta Kotz, D.M. (2010): "The Dependence of China's Economic Growth on Exports and Investment". *Review of Radical Political Economics*, 43 (9). 9-32.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigratioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen ereduaren birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

